

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

5307

EBAZPENA, 2020ko urriaren 22koa, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariarena, zeinaren bidez honako agindu honen babespean eskatutako laguntzak eman eta ukatzen baitira: Agindua, 2020ko urtarrilearen 31koa, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez G4, G5 eta G6 sailkatutako landa-eremuetan ekonomia garatzeko eta dibertsifikatzeko laguntzen deialdia egin zen, entitate pribatuei zuzenduta (Erein pribatuak), 2020ko ekitaldirako.

Ikusita gorago aipatutako Ekonomiaren Garapen eta azpiegituretako sailburuaren 2020ko urtarrilaren 31ko Aginduaren babespean eskatutako laguntzak –ebazpen honen I. eta II. eranskinetan– eta eskariekin batera ekarritako dokumentazioa -espediente zenbakiak aipatu eranskinetan agertzen dira.

Kontuan izaki, besteak beste, Landa ingurunearen garapenerako apirilaren 8ko 10/1998 Legearen arabera, landa garapeneko politikaren xede orokorrak ondokoak direla: nekazaritzaren eta landa ingurune osoaren funtzioaniztasuna eta iraunkortasuna bermatzea, landa ingurunearen berezko ezaugarri nagusiak zaintzea eta enpresek eta ekonomia egiturek lehiatzeko duten gaitasuna hobetzea eta sustatzea.

Hemen onartutako laguntzak honen babespean ematen dira: Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamendua, zeinaren bidez Europar Batasunaren Funtzionamendu Itunaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzea arautzen baita; laguntza horien muga 200.000 euro da enpresa bakoitzeko, hiru zerga ekitalditan.

Balorazio Batzordeak ebazpen proposamena egin du. Batzorde hori 2020ko urtarrilaren 31ko Aginduaren 10. ebazpen-zatia aplikatuta eratu eta Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariak 2020ko ekainaren 26an emandako Ebazpenaren bidez izendatu zen.

Kontuan hartuta aurreko guztia

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honen I. eranskinean aipatutako pertsona eskatzaileei Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuaren 2020ko urtarrilaren 31ko Aginduan araututako laguntzak ematea; izan ere, eranskin horretan ondokoak zehazten dira: pertsona onuraduna, diruz lagundutako proiektua, diruz laguntzeko moduko gastuaren eta emandako dirulaguntzaren zenbatekoa eta guztizko zenbatekoa, 1.212.683,28 euro.

Jarduketak gauzatzeko epea 2021eko abenduaren 31n amaituko da, deialdiko urtean hasi beharko delarik eta hala badagokio, 2020ko urtarrilaren 31ko Aginduaren hamabosgarren ebazpen-zatiko bigarren puntuan ezarritako gehieneko epea gainditu gabe luza daiteke.

Dirulaguntza eman ahal izateko alde zuzenetik justifikatu beharko da egindako jarduerak edo inbertsioak ordaindu izana, kontuan izanda zein diren aurkeztu beharreko agiriak eta 2020ko urtarrilaren 31ko Aginduaren 16. artikuluan ezarritako baldintzak.

2020ko abenduaren 11, ostirala

Onuraduna eratzen ari den pertsona juridikoa bada, laguntza kobratzeko ezinbestekoa izango da pertsona hori eratuta egotea.

Halaber, beharrezko direnean baimenak edota lizentziak, beroriek ematea ezinbestekoa izango da laguntza kobratzeko.

Diruz laguntzeko moduko proiektua ezarritako epeen barruan egiten ez bada, ezta luzapen-epéen barruan ere, edo ezarritako epean proiektua egin dela egiaztatzen duten agiriak aurkezten ez badira, horrek dirulaguntza jasotzeko eskubidea galtzea ekarriko du berekin.

Bigarrena.– Ebazpen honen II. eranskinean aipatutako pertsona eskatzaileei ukatzea Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuaren 2020ko urtarrilaren 31ko Aginduan araututako laguntzak, eta eranskin horretan pertsona eskatzailea eta ukazioaren zioak zehaztea.

Hirugarrena.– Laguntza ematen zaion proiektua betetzen ez bada, edo laguntza ematea ekarri duten baldintzak eta betebeharrak betetzen ez badira, eta batez ere, laguntza jaso duten proiektuetan inbertsioei ondorengo 5 urteetan, edo 3 urtez enplegua sortzeko proiektuen kasuan -benetan sortzen diren datatik- gutxienez ez bazaie eusten, laguntzak eten egingo dira, eta, hala badagokio, eskuratutako kopuruak itzuli beharko dira osorik edo zatika.

Laugarrena.– Administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen aurka, interesdunak gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordeari, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 22a.

Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendaria,
JONE MIREN FERNÁNDEZ LANDA.

2020ko abenduaren 11, ostirala

I. ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AURREKONTU OROKORREN KONTURA EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

Espediente-zk.	Sozietatearen izena	Proiektua	Lagun. inbe. (eurotan)	Jasotako laguntza (eurotan)	
				2020	2021
1	Joaquín Manuel Zavala Ceberio	Lau lanposturen sorrera altzoko ostiatuan	19.250,00	9.625,00	9.625,00
2	Fecin Cepillería Industrial, S.L.	Inversiones para el aumento de la productividad y la competitividad de Fecin	215.000,00	51.600,00	
3	Mikel Alkorta Aizpurua	Lizolagoine ustialeku ekologiko familiar batean oinarritutako nekazaritza eskaintza	76.546,97	16.840,33	
4	Goimatik Ingeniería, S.L.	Goimatik ingeniería eléctrica y de automatización	57.574,22	9.039,90	7.080,88
5	Liliana y Alberto, S.C.	Bar cafetería en Elciego	11.395,00	5.697,50	5.697,50
6	Servicios Hosteleros Overko, S.L.	Agroturismo y restaurante en Aldana (Amorebieta)	125.384,96	32.600,09	
7	Patricia Velasco García	Creación empresa de pintura en Legutio	5.750,00	2.875,00	2.875,00
8	Centro Ecuestre Zabolain, S.L.	Centro ecuestre Zabolain	405.682,00	83.875,06	50.000,00
9	Sara Revilla Villar	Nueva peluquería en Legutio	5.500,00	2.750,00	2.750,00
10	Mecanizados Goitondo, S.L.	Goitondo 2020	89.000,00	26.700,00	
11	Mugape, S.L.	Automatización del proceso oxsilan y puesta en marcha de la línea de contigencia	131.643,00	40.809,33	
12	Forjas de Metales Especiales, S.A.	Ampliación capacidad productiva para acometer nuevo producto mediante adquisición de dos máquinas (mas	152.676,00	32.061,96	
13	Andrea Santamaria Río	Creación de servicio de guía turístico: rut-as	5.500,00	2.750,00	2.750,00
14	Ekar Garraioak, S.L.	Implantación de nueva actividad logística para productos refrigerados y optimización de proceso de	256.003,33	44.240,97	30.000,00
15	Raquel Uribarren Errasti	Centro de belleza en Legutio	36.403,17	9.464,82	
16	Iñaki Arregi Irizar	Proyecto Urbizixa, espacio de encuentro, crecimiento y evolución.	117.936,45	41.277,76	
17	Viñedos de Paganos, S.L.	Restaurante en Viñedos de Párganos	396.025,80	55.178,31	55.708,92
18	Lavándula Cosmética Natural, S.L.	Lavándula laboratorio cosmética natural	2.999,73	839,92	
19	Larrañaga Motorsport, S.L.	Taller de mecánica de competición	36.653,40	9.524,45	1.105,03
20	Garikoitz Aiesta Etxaniz	Rehabilitación y acondicionamiento de caserío Kamifone del barrio Astigarreta (Beasain) para instala	361.021,21	25.700,59	64.554,72
21	Elixabete Errasti Garate	Presoterapia dúo + diatermia + electrolisis	12.609,84	4.035,15	
22	Panel Fijaciones, S. Coop.	Inversiones para el aumento productivo y la mejora de la competitividad en Panelfisa	58.154,26	16.864,74	

2020ko abenduaren 11, ostirala

Espediente-zk.	Sozietatearen izena	Proiektua	Lagun. inbe. (eurotan)	Jasotako laguntza (eurotan)	
				2020	2021
23	Behemendi Donostialdea- Bidasoako Landa Garapenerako Elkaritea	Astigarragako eskaera bidezko landa-garraio zerbitzua	35.862,97	8.965,74	
24	Eredu Sociedad Cooperativa	Adquisición de inversiones para el desarrollo de nueva línea de producto y mejora de la productividad	252.065,45	70.509,39	22.754,83
25	Manufacturas Zeta, S.L.	Adquisición de tecnología para el acceso a nichos de mercado avanzados	147.865,00	42.880,85	
26	Karnele Zuatzubizkar Egidazu	Goiko errota landetxea	308.428,85	69.581,47	19.862,90
27	Arkaitz Amuriza Goikoetxea	Proyecto casa rural en barrio Launtzain Areatza	162.053,10	39.485,56	7.509,84
28	Jon Ordeñana Usubiaga	Inversión en desarrollo de microempresa para aumento de la productividad	6.721,29	1.613,11	
29	Ignacio Javier Imaz Lizaso	Apartamentos turísticos rurales Agiñaga	36.961,00	10.349,08	
30	Yaiza Cid Foruria	Creación de empresa Noverek Events, S.L.	524.750,26	54.919,68	107.752,90

2020ko abenduaren 11, ostirala

II. ERANSKINA

UKATUTAKO ESKABIDEAK

Espediente-zk.	Sozietatearen izena	Proiektua	Ukapenaren arrazoia
1	Ignacio María Astigarraga Urdallela	Excavaciones INA	Proiektuak ez du jaso gutxienezko puntuazioa lagungarria izateko
2	Vanesa Barriuso Zabaleta	Inversiones complementarias en agroturismo del caserío Basitegi (Urnieta)	Aurreko deialdi baten diruz lagundutako proiektua
3	Arise Cauchos, S.L.	Inversiones básicas para recubrimientos en caucho	Proiektuaren lan-egutegia ez dator bat horretara zuzendutako finantza-xedapenaren kredituekin
4	Grupo Garzón Global Packaging Solutions S.L.	Proyecto de inversión en implantación de software de gestión	Proiektua ez dator bat Aginduak arautzen dituen laguntza lerrorekin
5	Jatone Izaguirre Alberdi	Upai landetxea	Proiektuaren lan-egutegia ez dator bat horretara zuzendutako finantza-xedapenaren kredituekin
6	Laura María Barrondo Ayesta Sonia María Barrondo Ayesta	Ampliación de servicios y mejoras en casa rural Etxegorri	Proiektua ez dator bat Aginduak arautzen dituen laguntza lerrorekin
7	José Agustín Barandiaran Iturriaga	Asteinza nagusia	Proiektua ez dator bat Aginduak arautzen dituen laguntza lerrorekin
8	Lizenlan S.L.	Mejora de la competitividad a través de cambios en la gestión y en los procesos mecanizables de los	Proiektua arautzen duen Aginduak aurreikusten duen esku-hartze eremutik kanpo dago
9	Ercillaport, S.L.	Mejoras en hotel El Puerto	Proiektua ez dator bat Aginduak arautzen dituen laguntza lerrorekin
10	Hostal Itziar S.L.	Itziariko hostala, zerbitzu berriak	Proiektuaren lan-egutegia ez dator bat horretara zuzendutako finantza-xedapenaren kredituekin
11	Camping Itxaspe S.L.	Camping Itxaspe: apartamentos y terraza panorámica	Proiektua ez dator bat Aginduak arautzen dituen laguntza lerrorekin
12	Ixua Hotela, S.L.	Servicio lavandería en el hotel Ixua	Proiektua ez dator bat Aginduak arautzen dituen laguntza lerrorekin
13	Amox Iberian Investments, S.L.	Casa rural en Laguardia, Santa Engracia	Proiektuaren lan-egutegia ez dator bat horretara zuzendutako finantza-xedapenaren kredituekin
14	Asumadik S.L.	Desarrollo de nuevos productos nutracéuticos de uso alimentario.	Proiektua ez dator bat Aginduak arautzen dituen laguntza lerrorekin